



# 2018



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

## Ana Ibañez Elosua eta Dani Martirena Indart egileek irabazi dute 2018ko Etxepare saria COSIMOREN KATIUSKAK albumarekin

## Ana Ibañez Elosua y Dani Martirena Indart han ganado el premio Etxepare 2018 con el álbum COSIMOREN KATIUSKAK

Con formato: Vasco

Con formato: Vasco

Con formato: Fuente: 11 pt, Vasco

Etxepare sarian 19 lan aurkeztu dira.

A esta edición se han presentado 19 obras.

**Lan irabazlea:** Cosimo eta parke txiki bat dira protagonistak. Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren *Il barone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute, Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote eta, gizartean kokatuz, edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute.

**Obra premiada:** Los protagonistas son Cosimo y un pequeño parque. Cosimo ha construido una choza en un árbol, y desde ahí observa su alrededor. Los autores han utilizado la referencia *Il barone rampante*, de Italo Calvino, y lo han actualizado dándole a Cosimo nuevos recursos, y situándolo en la sociedad, han desplegado la reivindicación de la belleza.

### Epaimahaia:

### Jurado:

Leire Bilbao (idazlea)  
Leire Salaberria (ilustratzailea)  
Asun Agiriano (haur bibliotekaria)

Leire Bilbao (escritora)  
Leire Salaberria (ilustradora)  
Asun Agiriano (bibliotecaria infantil)

### Epaimahaikideek azpimarratutakoa:

### Qué aspectos ha subrayado el jurado:

"Gogoetarako kontakizuna ere bada gaur saritzen ari garen obra hau, testuak poesia du, umorea eta jolasa: hitzekin jolasten du idazleak, irudiekin marrazkilariak. Biek album ilustratu baten ezaugarri nagusiak bikain erakusten dute, hau da, irakurlea adi egotearena eta heldu baten konpainia ezinbestekoa izatearena, xehetasun guztiak harrapatzea nahi baditugu.

(Texto traducido)

"Esta obra que premiamos hoy también es un relato para la reflexión, el texto contiene poesía, humor y juego: el escritor juega con las palabras y la ilustradora con las imágenes. Los dos muestran de forma notable las características de un álbum ilustrado; esto es, el hecho de atrapar al lector y la necesidad de la compañía de una persona adulta, si queremos ver todos los detalles.

Cosimoren katiuskak liburu indartsua da bai testuan baita ilustrazioan ere, aberatsak dira bi lengoaiak. Teknikoki ausarta, guztiak du zeresana, eta horregatik eskaintzen du irakurketa ugari; arriskatzen duen obra bat da, euskal idazle eta ilustratzaileen maila ondo baino hobeto erakusten duena".

Cosimoren katiuskak es un libro que tiene fuerza, tanto en la ilustración como en el texto, los dos lenguajes son muy ricos. Técnicamente es valiente, todo tiene un significado, y es por lo que ofrece muchas lecturas; es una obra que arriesga, y que muestra de forma inmejorable el nivel de los y las escritoras euskaldunes e ilustradoras e ilustradores.

**Saria:** Sari bakarra eman da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan.

**Premio:** Se ha concedido un único premio de 5.000 €, como adelanto de derechos de autor(a).

**Argitalpena:** Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2018ko udazkenean.

**Publicación:** La obra premiada lo publicará la editorial navarra Pamiela, en euskera, en otoño de 2018.



# 2018



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

## Saridunei buruzko informazioa:

[Dani Martirena Indarten biografia eta argitaratutako lanak:](#)

## Información sobre los autores de la obra:

[Dani Martirena, biografía y trabajos publicados:](#)



**Dani Martirena Indart**, Legasan jaioa, kazetaria ogibidez, azken urteotan Euskal Irrati Telebistako albistegietan erredaktore bezala lan egiten du.

Literaturari dagokionez, han eta hemengo lehiaketetan saritu izan dituzte bere idazlanak. Tartean, Basauriko Euskarabila elkarteak urtetan antolatu izan duen ipuin erotikoen lehiaketan; eta Txalaparta argitaletxeak lan sarituekin argitara emandako liburu bildumetan irakuri daitezkeenak: *Bero Hezeak* (2001) eta *Esku Hori* (2012).

Iruñeko Udalak egile berrientzat antolatzen duen literatura lehiaketan ere nabarmendu dituzte bere lanak. Kasurako, lehen saria jaso zuen 2015. urtean *Astearte hark arrunta behar zuen* narrazio laburrekin.

Nafarroan euskaraz idazten duten egileekin Pamiela argitaletxeak *39 idazle nafar* izenburupeko argitalpenean ere parte hartu du, *Listu balak* idazlanarekin (2017).

Haurrentzako literaturari begira, auto-ekoizpenaren bidetik bi liburu argitaratu ditu Ana Ibañezekin batera: *Hankaz gora du amak mundua* (Liburu iletsuak, 2015), *Jonek Jone izan nahi du* (Liburu iletsuak, 2017).

**Dani Martirena Indart**), nacido en Legasa, periodista de profesión, en los últimos años trabaja como redactor de informativos de Eitb.

En el ámbito de la literatura tiene trabajos que han sido premiados en diversos certámenes entre los cuales están el certamen de cuentos eróticos que durante años ha organizado la asociación *Basauriko Euskarabila Elkarte*, y que se pueden leer en la recopilación publicada por la editorial Txalaparta.


El Ayuntamiento de Pamplona, en el certamen que organiza para jóvenes autores y autoras, también ha destacado sus trabajos. Es el caso de la narración corta *Astearte hark arrunta behar zuen*, que recibió el primer premio en 2015.

Ha participado también, en 2017, en la publicación titulada *39 idazle nafar* que la editorial Pamiela ha elaborado con los autores y autoras de Navarra que escriben en euskera.

En lo que se refiere a la literatura infantil, y a través de la autoedición, ha publicado junto a Ana Ibañez: *Hankaz gora du amak mundua* (Liburu iletsuak, 2015), *Jonek Jone izan nahi du* (Liburu iletsuak, 2017).



# 2018



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

[Ana Ibañezen biografia eta argitaratutako lanak:](#)

[Ana Ibañez, biografía y trabajos publicados:](#)



**Ana Ibañez Elosua**, Iruñean jaioa, Arte Ederretan lizentziatua eskultura alorrean. Halaber, grabatu eta estanzazio teknikak ikasi zituen Iruñeko Arte Eskolan.

Hainbat taldekako erakusketetan parte hartu du, hala nola norbanakoetan. Zizur Nagusiko kultur etxean, *Biguina eta beroa* (2004), *Koloreak eta hariak* Gayarre Antzokian (2003) edo *Haragi barruko lorategiak* Molmar arte galerian (2002) dira banaka egindako erakusgaien adierazgarri.

Sariak eta bekak ere jaso izan ditu. Kasurako, eskulturako 2. saria eta pinturako 3. saria Iruñeko Gazte Sarien XIV. deialdian.

Auto-ekoizpenaren bidetik, Dani Martirenarekin batera, *Hankaz gora du amak mundua* eta *Jonek Jone izan nahi du* liburuetarako ilustrazioak egin ditu.

**Ana Ibañez Elosua**, nacida en Pamplona, licenciada en Bellas Artes, especialidad de escultura. También ha estudiado técnicas de grabado y estampación en la Escuela de Arte de Pamplona.

Ha participado tanto en exposiciones colectivas como en individuales. He aquí, como muestra, algunas de ellas: *Biguina eta beroa* (2004), *Koloreak eta hariak* en el Teatro Gayarre (2003), *Haragi barruko lorategiak* en la galería de arte Molmar (2002).

Ha realizado las ilustraciones de los libros *Hankaz gora du amak mundua* y *Jonek Jone izan nahi du*, que han sido autoeditados junto a Dani Martirena.



# 2018



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Antolatzaileak:** Etxepare saria Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

Agoizko Udala  
 Antsoaingo Udala  
 Atarabiako Udala  
 Barañaingo Udala  
 Baztango Udala  
 Berriobeitiko Udala  
 Berriozarko Udala  
 Bortzirietako Euskara Mankomunitatea  
 Burlatoko Udala  
 Esteribaroko Udala  
 Galar Zendeako Udala  
 Garesko Udala  
 Irantzu Mankomunitatea  
 Iruñeko Udala  
 Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea  
 Lizarako Udala  
 Malerrekako Mankomunitatea  
 Sakanako Mankomunitatea  
 Tafallako Udala  
 Uharteko Udala  
 Zaraitzu eta Erronkariko Batzorde Nagusiak  
 Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua.

**Laguntzailea:** Pamiela argitaletxea.

**Babeslea:** Nafarroako Gobernua–Euskarabidea.

**Sariaren historia:** Nafarroako 22 toki-entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketan alorrean erreferentzia izanen zen saria sortzeko xedearekin, Etxepare sariak antolatu zituzten 2004an. Etxepare sariak haur, gazte eta helduentzako literatura saritu zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketak urriak dira, eta, alde horretatik, ekimen berritzailea dugu hau.

Bestalde, albumak dituen ezaugarriengatik garestia da bere produkzioa. Argitaratzeko zailtasun hori bihurtzen da, hain zuzen, albumak sortzeko oztopo nagusi. Beraz, Etxepare sariaren helburuak betetzeko ez da nahikoa saria ematearekin, lanak argitaratzen ere lagundu behar da. Horrela, saritutako lana Pamiela argitaletxe nafarrak

**Organizadores:** El Premio Etxepare lo organizan 22 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

Ayuntamiento de Aóiz  
 Ayuntamiento de Ansoáin  
 Ayuntamiento de Villava  
 Ayuntamiento de Barañain  
 Ayuntamiento de Baztan  
 Ayuntamiento de Berrioplano  
 Ayuntamiento de Berriozar  
 Mancomunidad de Euskera de Borziriak  
 Ayuntamiento de Burlada  
 Ayuntamiento de Esteribar  
 Ayuntamiento de Cendea de Galar  
 Ayuntamiento de Puente la Reina  
 Mancomunidad de Iranzu  
 Ayuntamiento de Pamplona  
 Mancomunidad de Euskera del Norte de Navarra  
 Ayuntamiento de Estella-Lizarra  
 Mancomunidad de Malerreka  
 Mancomunidad de Sakana  
 Ayuntamiento de Tafalla  
 Ayuntamiento de Huarte  
 Juntas Generales de Salazar y Roncal  
 Patronato de Cultura del Ayuntamiento de Zizur Mayor

**Colabora:** Editorial Pamiela.

**Patrocina:** Gobierno de Navarra–Instituto Navarro del Euskera.

**Trayectoria del Premio:** Un grupo de entidades locales de Navarra (22), a través de sus servicios de euskera, ante la inexistencia de un premio literario de cierta relevancia en euskera, y, por tanto, con el objetivo de crear un certamen que sirviera de referencia en el campo de los concursos literarios, crearon los premios literarios Etxepare en 2004. Estos premios Etxepare, en sus dos primeras ediciones, galardonaron la literatura dirigida a niños y niñas, jóvenes y personas adultas.

A partir de 2006, Etxepare se convirtió en una beca para la creación de álbumes infantiles, con el objetivo de impulsar la producción de textos ilustrados creados en euskera, dado que la mayoría de los álbumes que se publican en euskera son traducciones. Son muy escasos las becas o concursos que impulsan la creación de álbumes en euskera, y, desde ese punto de vista, ésta es una actividad innovadora.

Por otro lado, y debido a las características propias de los álbumes, su producción es cara. Esa característica para su publicación es lo que se convierte en el impedimento principal para crear álbumes. Por tanto, para lograr los objetivos del premio Etxepare, no es suficiente con dar el premio, también hay que impulsar



# 2018



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

argitaratzen du.

2009az geroztik Etxepare beka izateari utzi eta saria bilakatu da. Horiek horrela, lehiatuko diren albumak bukatuta aurkeztu beharko dituzte lehiakideek.

la publicación de los trabajos. Así que, la editorial navarra Pamiela es la que publica la obra premiada.

En el año 2009 Etxepare dejó de ser una beca para convertirse en premio, de forma que, actualmente, las obras se presentan en álbumes terminados.

**Aurreko edizioetako saridunak:**

**Premiados y premiadas en ediciones anteriores:**

Urtea/ Año	Lana/ Obra	Egileak/ Autores y autoras
2017	<i>Arraroa</i>	Ainara Azpiazu (Axi) & Paula Estévez
2016	<i>Zerua gris dago</i>	Liébana Goñi & Isak Martínez
2015	<i>Munstroek ere pixa egiten dute ohean</i>	Pello Añorga & Jokin Mitxelena
2014	<i>Hiltzaileak</i>	Leire Salaberria
2013	<i>Gerrak ez du izenik</i>	Leire Bilbao & Maite Mutuberria
2011	<i>Hara!</i>	Miren Asiain
2010	<i>Euria ari duenean</i>	Leire Salaberria
2009	<i>Alex, nire laguna</i>	Mikel Gurrutxaga & Maite Gurrutxaga
2008	<i>Katalina kontalari</i>	Iñaki Zubeldia & Estibalitz Jalón
2007	<i>Zirkua amets</i>	Joxan Ormazabal & Iraia Okina

Irabazleekin harremanetan jartzeko: / Para contactar con las personas premiadas:

**Dani Martirena Indart – 637 542 415 – [danielto@hotmail.com](mailto:danielto@hotmail.com)**

**Ana Ibañez Elosua – 656 582 755 – [anaielosua@hotmail.com](mailto:anaielosua@hotmail.com)**